



**TOMAS AQUINOKOA ETA  
ESKOLASTIKA**

## TESTUINGURU HISTORIKOA.

Mendebaldeko Europan nagusitu zen antolaketa sozial, politiko eta ekonomikoa Erdi Aroan zehar feudalismoa izan zen. Antolaketa sozial horren oinarria basailutza da. Basailutzak jaunak eta bere basailuen arteko harremanak ezartzen zituen. Horren arabera, jaunak lur-eremuak eskaintzen zizkieten basailuei, eta lur horien truke basailuek leial izateko hitz ematen zuten. Leialtasun horrek, besteak beste, zerbitzu militarra eta jaunak deitzen zituen batzarretan parte hartzea eskatzen zituen. Horrez gain, zerga batzuen truke, jaunak babesa eman eta ordena mantentzen zuten. Ekonomiak lurra zuen oinarria, eta tokikoa zen komunikabideak errazak ez zirelako. Estatua gaur ulertzen dugun moduan ez zen existitzen, lurralde zabal bat kontrolatzeko gai zitekeen botere zentrala ez baitzegoen.

800. urtetik aurrera, Aita Santuak Carlomagno enperadore koroatu zuenean, kristautasuna gizartea bateratzeko eragile bilakatu zen. Erregea botere politikoaren ordezkari nagusia zen, baina bere boterea ahula zen eta ez zen benetan eraginkorra. Egia esan, erregea bat jaun feudalen artean zen (*primus inter pares*). Aita Santuak botere espiritualaren ordezkari zuten, eta izugarriko kontrol bat zuten pentsamenduan, artean eta kulturean.

Aita Santua eta enperadorearen arteko liskarrak, eta, geroago, erregeen artekoak asko eta maiz izan ziren, garai honen ezaugarri bat izanik. Horregatik, garaiko pentsalariek aztertu zuten gaien artean botere politikoa eta botere espiritualaren arteko gatazka nabarmendu behar dugu.

XII. mendetik aurrera, bi gertaerek feudalismoaren beherakada ekarriko zuten pixkanaka. Alde batetik, hirien garapena (burgoak) dugu, populazioaren handitzearekin batera gertatu zena, bestaldetik, merkataritzarako bide berriak ireki zituzten (gurutzadek eragin handia izan zuten horretan) eta horrek ekonomiaren garapena ekarriko zuten.

## HIRIAK ETA UNIBERTSITATEAK

XIII-XIV mendeetan (Behe Erdi Aroan), Europan aldaketa handiak eta sakonak gertatu ziren politikan, ekonomian, gizartean eta kulturean. Aldaketa horiek hirien berpiztea ekarriko zuten.

XIII. mendean zehar, Paris, Oxford, Cambridge, Salamanca hirietan unibertsitateak sortu zituzten. Ikasketak zazpi arte liberalen arabera antolatzen ziren, Carlomagnoaren garaian ezarri zuten moduan. Arte horiek bi multzotan banatzen ziren: *trivium* edo arte literarioak (gramatika, erretorika eta dialektika) eta *quadrivium* edo arte zientifikoak (aritmetika, geometria, astronomia eta musika). Bi etapa horiek burutuz gero, ikasleek espezialitate bat ikasten zuten: teologia, medikuntza edo zuzenbidea. Unibertsitateak eztabaida eta kritikarako guneak ziren, eta Aristotelesen pentsamendua eztabaida askoren gaia zen. XII. mendean, Filosofiak monastegietan izan zuen egoitza, XIII. mendetik aurrera, esan bezala, unibertsitateetan hartu zuen egoitza. Eskolastikak, aurreko mendeetan sortutakoa, urrezko garaia ezagutu zuen.

## ARKITEKTURA ETA KULTURA

Erdi Aroan erlijio kristaua gertaera sozial, politiko, kultural eta artistiko guztien erdigunean dago. Garai horretako arkitektura kristautasunak zuen boterea eta aberastasunaren islada zen, batez ere katedrala handietan, estilo gotikoaren arabera eraiki zituzten katedraletan. Literaturan ere munduari buruzko ikuskera kristaua: Grezia klasikotik jasotako unibertso geozentrikoa eta Jainko kreaizalearen ideia bateratzen dituen ikuskera islatu zen. Dante Alighieriren *Jainkozko komedia* izeneko lana horren adibidea izan zen.

## TESTUINGURU FILOSOFIKOA

### ESKOLASTIKA

Eskolastika **arrazoia eta fedearen arteko erlazioa**, filosofia eta teologiaren arteko erlazioa aztertzeko Erdi Aroan bultzatu zen gogoeta filosofikoa izendatzeko terminoa dugu. Filosofia egiteko modu horrek zuen ezaugarri nagusia erlijioaren menpe egotea zen. Egia esan, filosofia teologiaren neskametzat hartu zuten (*ancilla theologiae*). IX. mendean sortu zen Europan eta Behe Erdi Aroan zehar unibertsitatetan eta eskoletan garatu zen Eskolastika. Ordezkarri nagusiak Anselmo Canterburykoa eta Tomas Aquinokoa ditugu.

Patristika ez bezala, platonismoaren eraginpean garatu zen filosofia izan zena, Eskolastika Aristotelesen pentsamenduan oinarritu zen. Pentsalari eskolastikoek bi gai aztertu zituzten batez ere: Alde batetik, fedea eta arrazoiaren arteko erlazioa, bestaldetik unibertsalen inguruko problema.

XIII. mendean Aristotelesen lanak arabieratik latinera itzuli zituzten, eta, horiekin batera, Aristotelesen lanei buruz hainbat filosofo musulmanek idatzi zituzten komentarioak (Averroes eta Avicena, besteak beste). Horri esker, Mendebaldean zabandu zen filosofo greko horren pentsamendua eta horrek eragin zituen lilura eta beldurra ezagutu zutenengan: batzuen ustez Aristotelisen pentsamendua arrazoimenaren lorpen handia zen eta liluratua gelditu ziren, beste batzuen ustez fede kristauak aitortzen zituen hainbat dogma ukatu edo kolakan jartzen zituen eta horregatik beldur zioten. Ordura arte, Europan Aristotelesen pentsamenduari buruz alderdi gutxi batzuk ezagutzen zituzten baina ez bere osotasunean. Bere idazlanak zabaltzeak Aristotelesen pentsamendua eraikuntza razional eta sistematiko bat zela ulertzea ekarri zuen.

Tesi aristoteliko batzuk dogma kristau batzuen kontra agertzen ziren, eta horrek ekarri zuen berekin arrazoa eta fedearen arteko erlazioa aztertu beharra, horien artean bateragarritasunik posiblea zen argitzeko. Antza zenez, **Biblian** zegoen egia errebelatua ez zectorren bat **Aristotelesen** eta bere komentaristen arrazoibide zorrotzarekin.

Pariseko unibertsitatea, 1200. urtean fundatu zutena eta Europako erdigune kultural bilakatua zena, eztabaida horren eszenatokia izan zen. 1213. urtean Gregorio IX Aita Santuak errebelazioarekin bat ez zetozen tesi guztiak Aristotelesen lanetan ezabatzeko agindua eman zuen, horrela Elizarentzat onargarri bihurtu zedin.


Giro gatazkatsu horretan korrante desberdin batzuk sortu ziren: Batzuk Aristotelesen pentsamendua eta dogma kristaua uztartzen saiatu ziren, beste batzuk uztartze horren kontra gogor azaldu ziren eta pentsamendu aristotelikoa debekatzea aldarrikatu zuten. Hiru jarrera bereizi daitezke:

- **Aberroismo latino**a. Averroesen pentsamenduari jarraitu nahi zioten, baina azken batean, Averroesek berak defenditu zituen hainbat tesi ere ukatu edo eraldatu zituzten. Hori gertatu zen Averroesen pentsamendua itzulpen baten bidez ezagutu zutelako, arabieratik latinera itzulpenaren bitartez, eta bide horretan hainbat gauza eraldatu ziren. Aberroistek eztabaida gogor eta luzeak eragin zituzten, beraiek defenditu zituzten tesi batzuegatik: mundua betierekoa delako tesia, arima hilkorra delakoa, egia bikoitzaren teoria. Azken horren arabera, fedea eta arrazoa elkarren kontrako konklusioetara iritsi ahal dira. Aberroismoaren ordezkari nagusia Sigerio Brabantekoa izan zen (1240-1284).

- **Agustinismoa.** Korrante honetan kokatu zirenak Aristotelesen pentsamendutik hurbil zeuden planteamenduen kontra jarri ziren eta gogor eraso zieten aberroistei. Horien aurrean, Agustin Hiponakoaren tesiak defenditu zituzten: unibertsoa betierakoa ez delako tesia, arima hilezkorra delako tesia, Jainkoarengan ideia ereduak daudelako tesia (eta horregatik gizakiak duen adimenezko ahalmenak Jainkoaren argitzeari esker gauzatu dezake bere jarduera). Agustinismoaren ordezkari nagusienetako bat Buenaventura izan zen (1221-1274).
- **Aristotelismo latino.** Korrante honetan Alberto Handia (1193-1280) eta Tomas Aquinokoa (1225-1274) ditugu. Pentsamendu aristotelikoa eta dogma kristaua uztartzea bultzatu nahi zuten. Aberroista latinoek ez bezala, fedearen kontra jotzen zuten baieztapen aristotelikoak gaitzetsi zituzten (munduaren betierekotasuna eta arimaren hilkortasuna) eta, agustinismoak ez bezala, Aristoteles pentsalari oinarrizko eta beharrezkotzat hartu zuten. Eztabaida eta ukazio ugari ondoren, Tomas Aquinokoa aristotelismoa doktrina kristauaren barne txertatzea lortu zuen.

Aristotelismoaren kontrako giroa 1270. urtean gailurrera iritsi zen, Étienne Tempier Pariseko gotzainak aberroistek zein aristotelikoez defenditzen zituzten 13 tesi gaitzetsi zituen. 1277. urtean, Tempier horrek berak, Aristotelesen pentsamendua aztertzeko osatu zen batzorde batek emandako jarraibideak kontuan hartuz, 219 tesi gaitzetsi zituen, eta tesi horiek defenditzen zituztenentzat eskumikuaren zigorra ezarri zuen. Dogma kristauen kontra jotzen zuten tesiak gaitzetsi zituen, baina ez pentsamendu aristoteliko osoa. Hala ere, erabaki horrek berekin ekarri zuen unibertsitate hainbat irakasle kanporatzea eta horiek jazarpena ere sufritu zuten. 1325. urtean, Étienne Bourret Pariseko gotzainak bere aurrekariaren gaitzespena indargabetu zuen eta Tomas Aquinokoaren pentsamendua ortodoxiaren barne zegoela aldarrikatu zuen.

**FEDEA ETA ARRAZOIAREN ARTEKO ERLAZIOARI BURUZKO EZTABAIDA**



## UNIBERTSALEN INGURUKO PROBLEMA

Unibertsalak banako multzo bati dagokien termino orokorrak dira – *animalia, landarea*, adibidez – (ideiak platonikoak edo forma aristotelikoak).

Unibertsalen inguruko problema filosofiaren historian oso garrantzitsua izan den beste aztergai bati lotuta dago: zer den ezagutzea eta nola gauzatzen den – Platonen eta Aristotelesen ustez, ezagutzak unibertsala den horren gainekoa izan behar du –.

Problema bi galderen inguruan dago:

- **Zer dira unibertsalak?** Galdera honetan kontua da unibertsalak errealitatean dauden objektuak izendatzeko erabiltzen ditugun terminoak diren ala errealitatean inongo erreferenterik ez duten hitzak besterik ez diren argitzea.
- **Nola eratzen dira unibertsalak giza adimenean?**

Halaber, unibertsalekin batera hizkuntza eta errealitatearen arteko erlazioa planteatzen da, ea posiblea den hizkuntzaren bidez errealitateak duen egitura esentziala ezagutzea.


Unibertsalen inguruko problema Porfirio filosofo neoplatonikoak (232-304) idatzi zuen *Isagoge* edo *Aristotelesen kategorietarako sarrera* izeneko liburua latinera itzuli zutenean agertu zen Erdi Aroko pentsamenduan.

Problema honen aurrean bi jarrera sortu ziren:

- **Errealismoa.** Jarrera honetan kokatu zirenek unibertsalak giza-adimenetik at existitzen diren formak direla defendatzen dute. Errealismoaren barne bi jarrera bereizten dira:
  - **Errealismo moderatua edo aristotelikoa.** Kontzeptu unibertsalak gauzen esentzia objektiboari (edo forma aristotelikoari) dagozkiola defendatzen du jarrera honek. Unibertsalak banakoen formak, generoak edo espezieak dira, hortaz badute errealtasun objektiboa, baina izaki partikularren menpe (Aristotelesek unibertsalak errealtzat jo zituen eta bigarren substantziak izendatu zituen). Unibertsalak objektu partikularretatik abiatuak abstrakzio prozesua baten bidez adimenean eratzen ditugu, eta prozesu hori burutzen duena adimen eragilea da.  
  
Jarrera honetan Boecio (480-524) eta Pedro Abelardo (1079-1142) ditugu. Pedro Abelardo Logikan aritzeagatik nabarmendu zen garai hartan eta bere jarrera unibertsalei dagokionez originala zen: banako zehatz bakoitzak (hau da, substantzia edo izaki partikular bakoitza) bere substantzia eta akzidente propioak ditu. Hala ere, banakoen multzoen artean antzekotasun-erlazioa dago, eta unibertsalak antzekotasun horiei buruz ari dira.
  - **Gehiegizko errealismo edo platonikoa.** Formak edo ideiak adimenetik at existitzen dira eta ez daude gauza partikularretatik menpe. Giza-adimenak forma horiek ezagutzen ditu reminiszentziaren bidez (anamnesis, oroitzea) – jaio baino lehen, arimak ezagutua zuen adimenezko mundua – edo argitzearen bidez – Jainkoak giza adimenean agertarazten ditu formak –, Agustin Hiponakoak azaldu zuen moduan.

Guillermo Champeauxekoak (1070-1121) gehiegizko errealismo horren hurbileko tesiak defendatu zituen. Esentziak (generoak eta espezieak) existitzen direla baieztatu zuen. Bere ustez, espeziea – forma aristotelikoa – banakoengan dago, eta banako guztiengan bakarra eta komuna da; banako bakoitza esentzia horren gainean gertatu diren eraldaketa akzidentalaren ondorioa besterik ez da. Tesi horiek defendatzeagatik beste batzuen kritika jaso zuen, batez ere Pedro Abelardoren partetik, eta azken batean Guillermo Champeauxekoak zuzendu dituen.

- **Nominalismoa.** Unibertsalen existentzia ukatu zuten nominalistek. Beren ustez, unibertsalak termino abstraktuak dira, konbentzio batengatik objektua konkretuei dagozkienak, baina berez hots hutsak (*flatus vocis*) dira, besterik ez, ez dagozkielako inongo objektu errealari. Nominalismoa gehiegizko errealismoaren kontra – nominalisten ustez ideiek ez dute adimenaren at existentziarik – eta errealismo moderatuaren kontra dago – nominalistek ez dute onartzen unibertsalak esentzia errealei (objektuen formei) dagozkien abstrakzioak direla. Roscelin Compiègnekoa (1050-1120) nominalismoaren ordezkari nagusienetako bat izan zen. Bere ustez, banako partikular eta zehatzak existitzen dira, besterik ez, beraz, unibertsalek ezin dute inongo erlaziorik eduki errealitatearekin. Horrek esan nahi du unibertsala ez dela kontzeptu bat, izen bat baizik, eta hots bat baino ez da. Izen horien eginkizuna izaki partikularrei buruz aritzea da.



## ANSELMO CANTERBURYKOA

Anselmo Canterburykoa (Aosta, 1033 - Canterbury, 1190) Eskolastikako pentsalari nagusia izan daiteke, eta, dudarik gabe, XI mendeko filosofia kristauaren ordezkari inportanteena izan zen. Benediktarren ordenako kidea izan zen. Bere idazlanen helburua Bec-eko monastegiko monjeei irakaspenak eta aholkuak eskaintzea zen beren fedea uler zezaten. Bere idazlanetan – *Monologion* (1077) eta *Proslogion* (1078) – nabarmena da Agustin Hiponakoaren eragina. 1093. urtean, Canterburyko artzapezpikua izendatu zuten. Kargu hori zeukanean, Ingalaterrako Endrike II. erregeari aurre egin zion. Horren ondorioz, erregeak erbesterratu zuen. Hala ere, Canterburyn eman zituen bere bizitzazko azken egunak.

Anselmoren ustez, arrazoiak ezin du fedearen ordezkia izan eta, arrazoiak ere ezin gaitu federa eraman, baina arrazoiak beharrezkoa da fedea ulertzeko. Horren ildotik, berak esan omen zuen: *“Ez dut sinesteko ulertzea bilatzen, baizik eta sinesten dut ulertzeko”*.

Fedea eta arrazoiaren arteko erlazio hori Anselmok bezala ulertzeko adibidea *Proslogion* izeneko liburuan aurkitzen dugun argudio bat dugu, XVIII. mendetik aurrera (Kanten eskutik) **argudio ontologikoa** deitzen dena.

## JAINKOAREN EXISTENTZIA FROGATZEKO ARGUDIOAK

Anselmo Canterburykoak bi argudio mota azaldu zituen Jainkoaren existentzia frogatzeko:

- **Argudio kosmologikoa.** Mundu fisikotik abiatuak Jainkoaren existentzia ondorioztatzeko eraikitzen diren argudioak dira. Argudio horien artean, Agustin Hiponakoaren pentsamenduan erroterik eta Tomas Aquinokoaren argudioen aurrekariak direnak ditugu. Batean Anselmok perfekzioaren graduak bereizten ditugula baieztatu zuen, eta horregatik beharrezkoa dela guztiz perfektua den izaki baten existentzia aitortzea, eta izaki hori Jainkoa dugula.
- **Argudio ontologikoa.** Jainkoaren definizioaren gaineko azterketatik abiatuak horren existentzia ondorioztatu zuen.

## ARGUDIO ONTOLOGIKOA

Argudio hau oso eztabaidagarria izan zen eta alde edo kontra kokatzera behartuta ikusi zuten beren burua ondorengo filosofoek, Erdi Arokoek zein Aro Modernoek.

Anselmoren ustez, Jainkoaren kontzeptuak hau adierazten du: Bera baino handiagoko izaki bat pentsatu ezin den izatea, izaki perfektuena da. Jainkoa baino handiagokorik edo perfektuagorik ez da existitzen. Jainkoaren existentzia ukatzen duten horiek definizio hori ere onartzen dute (eta Anselmok Jainkoaren existentzia ukatzeagatik zentzugabeak deitzen ditu). Fededun eta fedegabeen arteko diferentzia ez da Jainkoaren definizioa, horretan ados daude. Diferentzia da fededunek Jainkoaren existentzia baieztatzen dutela eta fedegabeek ez.

Definizio horretatik abiatuak, Anselmoren ustez, kontraesan bat izango zen Jainkoaren existentzia ukatzea: existituko ez bazen, ez zen perfektuena izango, ez zen izaki handiena izango, posiblea izango zen bera baino handiagoko bat pentsatzea, existitzen den bat, hain zuzen. Jainkoaren existentzia ukatzeak onartutako definizioaren kontra jotzea da. Beraz, beharrezkoa da Jainkoaren existentzia ondorioztatzea. Argudio horren bidez, Anselmo Canterburykoak azaldu zuen posiblea dela, arrazoiak baliatuak, fedea razionala dela erakustea.

## TOMAS AQUINOKOA

Tomas Aquinokoa (Roccaseca, 1225 – Fossanova, 1274) kristautasunaren filosofo nagusia dugu eta Eskolastikaren barne inportanteenetako bat. Bere familiak, noblea eta aberatsa zenak, ez zuen onartu Domingotarren ordenan bera sartzea. Hori dela eta, urte batez gazteluko dorre batean atxilotu zuten, bere iritzia aldatuko zelakoan. Denbora luze horretan Aristotelesen pentsamendua ikasi zuen. 1284.urtean, Tomas Aquinokoa Parisera joan zen Alberto Handiaren irakaspenak jasotzeko. Teologiako doktoretza eskuratu zuen eta 1256. urtean Pariseko unibertsitatearen irakasle izendatu zuten. Hor Aristotelesen pentsamenduaren inguruko eztabaida askotan parte hartu zuen, Estagirarraren pentsamendua fedearen ikuspegitik baliotsua eta onartzeko modukoa zela argitzeko.

Tomas Aquinokoak Aristotelesen pentsamendua eta kristautasuna uztartzea lortu zuen eta horregatik da hain garrantzitsua bere ekarpen filosofikoa. Fedea eta arrazoiaren arteko erlazioa definitzeaz gain, Aristotelesen pentsamenduan erroturikoak eta fede kristauarekin bateragarriak ziren metafisika eta etika garatu zituen.

Tomas Aquinokoaren lan nagusiak *Summa contra gentiles* – herejeak, juduak eta musulmanak konbertitzeko asmoz idatzi zuena – eta *Summa theologica* – 1265. urtean idazten hasi zena eta bukatu gabe utzi zuena –. Horiez gain *De ente et essentia* eta Pedro Lombardoren sententziei buruzko komentarioak nabarmendu beharrekoak dira.

## FEDEA ETA ARRAZOIAREN ARTEKO ERLAZIOA

Tomas Aquinokoak filosofia eta teologiaren arteko erlazioa aztertu zuen. Dakigun bezala, Filosofiak gai asko eta ezberdin aztertzen ditu (logika, etika, politika,...). Teologiak aztertzen dituen gaien artean batzuk filosofiak ere aztertzen ditu. Adibidez: Teologiarentzat Jainkoaren existentzia oinarritzeko egia errebelatua da, baina Filosofiarentzat Jainkoaren existentzia mundua aztertzearen bidez gure arrazoimenak iritsi dezakeen ondorioa izan daiteke. Adibide horretan ikus dezakegu bideak eta metodoak desberdinak direla. Teologiaren kasuan abiapuntua errebelazioa da, hau da, Jainkoak berak gizakiari jakinarazi dion ezagutza; Filosofiaren kasuan abiapuntua munduari buruzko behaketa eta behaketa horren gaineko azterketa zuzena da. Diferentzia metodologiko horiek kontuan harturik Tomas Aquinokoak honako bereizketa hau egin zuen:

- **Teologia naturala:** Gai teologikoak aztertzen dituen Filosofiaren atala da (adibidez: Jainkoaren existentzia)
- **Teologia dogmatikoa:** Bibliaren bitartez helarazi zaigun Errebelazioan oinarrituriko diskurtso zuzena da.


Bereizketa horretan Teologia eta Filosofiaren artean erlazioa dagoela ezarri zuen Tomas Aquinokoak. Baina, nolakoa da erlazio hori?

Tomas Aquinokoaren hausnarketak honako urrats hauek egin zituen:

- **Arrazoa eta fedea independenteak eta autonomoak dira.** Filosofia eta erlijioaren eremuak independenteak dira, eremu desberdinak dira eta bakoitzak bere ezaugarri propioak ditu.
  - **Arrazoiak** (filosofia) prozedura logikoak burutu behar ditu, bere oinarria sentimenezko munduari buruzko ezagutza da, eta ezagutza horretatik eratortzen dira egia guztiak. Egia filosofikoa **egia naturala** dira.



- **Fedea (teologia) egia errebelatuetatik abiatzen da**, eta egia horiek eztabaidatu gabe onartu beharrekoak dira. Teologiak **naturaz gaindikoa** aztertu behar du.
  
- **Fedea eta arrazoia elkarren artean osagarriak dira.** Ezin dira Teologia naturalaren baieztapenak eta Teologia dogmatikoaren baieztapenak elkarren kontrakoak izan, ezin da horien arteko kontraesanik onartu. Arrazoibideak zuzenak baldin badira, hau da, okerrrik gabekoak, Filosofiak Errebelazioaren bidez ezagut ditzakegun egia berberak iritsiko ditu. Beraz, Tomas Aquinokoak egia bikoitzaren teoria, averroismoak bultzatutakoa, ukatu zuen. Teologia naturalak eta Teologia dogmatikoak prozedura desberdinak dituzte, baina ondorio berberetara iritsiko dira biak beren arrazoibideak zuzenak badira. Egia bakar bat dago, beraz.
  
- **Filosofiak** fedearen artikulatu batzuk **ulertzen laguntzen** dizkigu, baina ez ditu fedearen lekua eta eginkizuna ukatzen. Alde horretatik, filosofia fedearen sarrera izan daiteke: baliagarria da fedearen baieztapenetara hurbiltzeko. Tomas Aquinokoaren ustez ezin da ulertu eta sinestu aldi berean, fedea berekin baitakar ziurgabetasuna, ziurtasunik eza. Horrek ez du esan Tomas Aquinokoak ezagutza filosofikoaren balioa ukatu zuela, baina balio hori mugatzen du: fedearen dogmak ezagutzearen sarbidea da ezagutza filosofikoa.
  
- **Azken egia teologikoa ezin dugu filosofiaren bidez iritsi.** Filosofiak ezin ditu erlijioaren misterio guztiak argitu. Adibidez, arrazoibide filosofikoen bidez Jainkoaren existentzia frogatu daiteke, baina bide hori ez da baliagarria Hirutasunaren misterio ulertzeko: Eliza Katolikoak aitortzen du Jainko bakar bat dela, baina berarengan hiru pertsonak daudela, Aita, Semea (Jesukristo) eta Espiritu Santua. Aita Jainkoa dela, Semea Jainkoa dela eta Espiritu Santua Jainkoa dela aitortzen du Eliza Katolikoak; hala ere, Jainkoa bakar bat dagoela ere aitortzen du. Jainkoa aldi berean bakar bat eta hiru pertsona da. Tomas Aquinokoaren ustez egia hori fedearen baieztapena bat da, eta, beraz, teologiaren edukia bat da. Filosofiak ezin du egia hori demostratu.
  
- Esan bezala, **Filosofiak** beste gai batzuk, teologiaz kanpo gelditzen direnak, aztertzen ditu, baina, aldi berean, horiek izan daitezke **tresna metodologikoak**, Teologiak erabil ditzakeenak.



## JAINKOAREN EXISTENTZIA FROGATZEKO BOST BIDEAK.

Ikusi dugun bezala, hainbat gai Filosofiak nahiz Teologiak aztertzen dute, bakoitzak bere metodoa erabiliz. Jainkoaren existentzia horietako gai bat da, eta oso adibide ona da bi jakintza horien artean dauden diferentzia metodologikoak ikusteko. Filosofiarentzat, Jainkoaren existentzia argudiatu beharreko konklusio bat da. Errebelazio kristaua baino lehenagoko hainbat filosofok jainkotasuna baiezteko beharra ezarri zuten, eta horrek erakusten du gure arrazoimenak duen gaitasuna fedearen egiak ezagutzeko. Teologiarentzat, Jainkoa da ezinbesteko abiapuntua.

Ikuspegi filosofiko batetik, Tomas Aquinokoak beharrezkotzat jo zuen Jainkoaren existentzia frogatzea, ideia hori jaiotzetikoa edo innatua ez baita, Agustin Hiponakoak defenditu zuenaren kontra jarritz. Bestalde, Tomas Aquinokoak, Anselmo Carterburykoak ez bezala, pentsatzen zuen ezinezkoa zela Jainkoaren existentzia frogatzea Jainkoaren definizioa abiapuntutzat hartuz, definizio bakar bat existitzen ez baita. Tomas Aquinokoak Anselmo Canterburykoaren planteamendua kritikatu zuen: Canterburykoak saiakeran errealitatearen planoan eta definizioen planoan nahasi zituen, Tomas Aquinokoaren ustez. Bere ustez, ezagutu dezakegun gauza bakarra sentimenez hautematen dugun hori da, eta Jainkoaren esentzia, beraz horren definizioa, sentimenez hautematen dugun horren kanpo gelditzen da.

### BOST BIDEAK

Jainkoaren existentzia frogatzeko, Tomas Aquinokoak frogapen batzuk asmatu zituen: bost bideak (*via*: bide). Bide guztiek egitura bera dute:

- Abiapuntua **sentimenez** ezagutzen dugun **ebidentzia** (nabaria den zerbait) bat da; adibidez: *gauzak mugitzen dira*.
- Denok onartzen dugun **printzipio metafisiko** bat aplikatzen da; adibidez: *mugitzen dena beste batek mugiarazten du*.
- Jainkoaren existentzia ukatzen bada, printzipio metafisiko hori aplikatuz gero zentzugabeak edo **absurduak** diren konklusioetara iristen da; adibidez: *higiarazle-segida infinitua beharrezkoa izango zen*.
- Ondorioz **Jainkoa existitzen da**.

Tomas Aquinokoak proposatu zituen bost bideak hauek dira:

- **Mugimenduaren bidea**. Gauzak mugitzen dira, eta mugitzen den orok mugiarazten duen higiarazle bat behar du. Higiarazle hori beste higiarazle batek mugiarazi du. Higiarazle-segida infinitua existitzea ezinezkoa da, beraz beharrezkoa da lehen higiarazle bat existitzea, mugiarazten duena eta, aldi berean, higiezin dena. Lehen higiarazle higiezin hori Jainkoa da.
- **Kausa eragilearen bidea**. Existitzen diren izaki orok kausa eragile bat du. Baina zentzugabea da kausa-segida infinitu bat dagoela. Beraz, ezerk kausatu ez duen lehen kausa bat existitzea beharrezkoa da. Ezer kausatu ez duen lehen kausa hori Jainkoa da.
- **Izaki beharrezkoaren bidea**. Gure inguruan dagoen oro existitzen eta hiltzen da. Beraz posiblea da existitzea eta hiltzea. Unibertsoan dauden izaki guztiak existitzen dira, baina posiblea izango litzateke ez existitzea. Hau da, existitzen den oro kontingentea da. Kontingenteak diren izakiak beste izaki kontingente batzuek sortu

dituzte. Ez du zentzurik pentsatzea sorrera-segida infinitu bat dagoela, unibertsoa bera, batasun bat bezala hartuta, kontingentea baita eta, beraz, posiblea izango litzateke ez existitzea. Ezerezetik ezin da ezer sortu, beraz, beharrezkoa da jainkotasun sortzaile bat existitzea, sorrerarik gabekoa (hau da, ez da izaten hasi, ez da sortu), eta betierekoa (hau da, betidanik existitzen dena) dena. Beharrezkoa den izaki hori Jainkoa da.

- **Izaki gorenaren bidea.** Pertsona guztiak gertaerak eta ekintzak epaitzeko gai dira, eta batzuk beste batzuk baino hobekak direla esateko gai, batzuk txalotzeko modukoak eta beste batzuk gaitzesteko modukoak direla esateko gai. Hori posiblea da Ongi goren bat existitzen delako eta horren arabera gainontzeko izaki guztiak epaitu ahal ditugu. Ongi goren hori Jainkoa da.
- **Munduaren gobernuaren bidea.** Munduan gertatzen den oro xede baterantz zuzenduta dago; adibidez, armiarmak bere sarea ehiza egiteko erabiltzen du, euriak landareak eta animaliak elikatzen ditu. Razionalak ez diren izaki naturalak xede baterantz jotzen dute, beraz. Xede hori existitzen bada, beharrezkoa da xede hori ezarri duen jainkozko adimen goren bat existitzea.

Sentimenezko mundutik hartutako esperientziatzko gertaera.	Argudiaketa	Ondorioa
<b>MUGIMENDUA:</b> Existitzen den guztia mugitzen da.	Mugitzen den izaki ororen mugimendua beste izaki batek eragin du.	Lehen Higiarrakzle batek existitu behar du
<b>KAUSALITATEA:</b> Existitzen den orok kausa bat du.	Izaki oro beste izaki batek kausatu du.	Lehen kausak existitu behar du.
<b>KONTINGENTZIA:</b> Izaki guztiak existitzen ala ez existitzen ahal dira.	Izaki guztiak kontingenteak izango balira, ez litzateke ezer existituko.	Beharrezkoa den izaki batek existitu behar du.
<b>PERFEKZIO-GRADUAK:</b> Badira izaki batzuk beste batzuk baino perfektuagoak.	Gutziz perfektua den izaki batek existitu behar du.	Gutziz perfektua den izaki hori Jainkoa da.
<b>MUNDUAREN GOBERNUA:</b> Existitzen den oro xede baterantz zuzenduta dago.	Ordena ezarri duen Adimen unibertsal batek existitu behar du.	Adimen Goren hori Jainkoa da.

Bost bide horietan, munduak dituen gabeziak azaldu eta kausa-segida infinituaren existentzia baieztekoa absurdua dela erakutsi nahi ditu Tomas Aquinokoak, eta, horren ondorioz, Jainkoaren existentzia beharrezkoa dela pentsatzera bultzatu nahi du.

## METAFISIKA: ESENTZIA ETA EXISTENTZIA

Tomas Aquinokoak egin zituen ekarpenen artean esentzia eta existentzia bereiztea izan zen oso garrantzitsua. Oinarritzat Aristotelesen metafisika hartu zuen, baina berak proposatu zuen bereizketa horri esker askoz errazagoa suertatu zitzaion pentsamendu aristotelikoa eta sineste kristauak uztartzea kreazioaren kontzeptuari dagokionez.

Aquinokoak honela definitu zituen esentzia eta existentzia:

- **Esentzia:**

- Izaki bat **definitzen duen hori** da.
- **Materiaz eta formaz osatutakoa** da. Biak, materia eta forma, kreatuak izan dira eta, beraz, kontingenteak dira.
- **Espezie bereko izaki guztiak** konpartitzen duten hori da, materiari zein formari dagokionez. Adibidez, mota bereko palmera guztiak materiaren antzekoaz osatuta daude eta forma komun bat konpartitzen dute.
- Esentzia eta **potentzia aristotelikoa** gauza bera dira, esentzia existitzera iritsi ahal den hori baita (aktu bihurtu daitekeen hori da, aktuan izatera pasa daitekeen hori da).

- **Existentzia:**

- Esentziari existitzea ematen dion hori da.
- Existentzia eta **aktu aristotelikoa** gauza bera dira: esentzia den hori aktu bihurtzen duen hori da.

Esentzia eta existentzia bereiziz gero, banakotze edo indibiduazioari dagokion problema suertatu zen. Problema horretan kontua da banakoa sortzen duen hori zein den ikertzea, hau da, izaki bakoitza gainontzeko guztietatik bereizten duen hori zer den eta nola gertatzen den. Tomas Aquinokoaren ustez, materia esentzialak ez du zenbatekotasun edo kantitatearen kategoria eta, beraz, ezin da neurtu eta kalkulatu ere ez. Materia orokorrean da eta banakotzea gertatu baino lehenagokoa da. Horren arabera, Tomas Aquinokoak esango zuen hezurak eta haragia giza-esentziaren alderdiak direla baina ez hezur jakin hauek edo haragi jakin hau. Banakotasuna gertatzen da materiak dimentsio neurgarri eta kalkulagarriak hartzen dituenean, materiari zenbatekotasunaren kategoria eransten zaionean. Banakotzearen printzipioa, beraz, materia zenbatekotasunaren kategoriaren menpe izatea da (materia *cuantitate signata*: zenbatekotasunaz markatuta).

Zenbatekotasunik gabe ez dago banakotasunik, ez existentziarik. Eta, alderantziz, existentziak zentzua dauka esentziari lotuta badago, bestela ez. Edozein izaki edo banako jakin zerbait da. Adibidez, *Sokrates gizakia da*. Horrek esan nahi du izaki partikularrei dagokienez, existentzia esentzia bati lotuta dagoela, existentzia hutsa (esentziarik gabe) zentzugabea da.

### Izaki kontingente eta izaki beharrezkoa.

Jainkoaren existentzia frogatzeko hirugarren bidean Tomas Aquinokoak esan zuen unibertsoa kontingentea dela. Kontingente izate horrek izaki beharrezko baten existentzia eskatzen du, unibertsoa sortu eta existentziara ekarri duena. Izaki beharrezko horrek esentziak aktu bihurtzen ditu eta existitzera bultzatzen ditu, eta izaki beharrezko hori Jainkoa da.

Jainkoa *da* (Bibliako Exodo izeneko liburuan agertzen den moduan: "Naizena naiz Ni"); ezin da Jainkoa potentziatzat hartu, aktu puru baita. Izaki zehatzak zerbait dira (existitzen dira


eta esentzia bat daukate), Jainkoaren esentzia existitzea da. Beraz, Jainkoa beharrezkoa da eta Kreazioa kontingentea da.

Esentzia eta existentzia bereizteak duen xedea da, alde batetik, Jainkoaren beharrezkotasuna eta Kreazioaren kontingentzia aurrez aurre jartzea eta horien arteko diferentzia agerian jartzea; eta, bestaldekik, mundua sortu zedin Jainkoaren existentzia beharrezkoa dela agerian jartzea. Bereizketa horrek, bestalde, unibertsoa kreatu izan dela nabarmentzea eta, beraz, betierekoa ez dela erakustea ahalbidetzen du, eta horrekin Tomas Aquinokoak bere pentsamendua aberroista latinoek defendatzen zuten ideia horretatik aldentzea lortu zuen (aberroista latinoek unibertsoa betierekoa zela azaldu zuten).

### Tomas Aquinokoaren metafisika Aristotelesen aldean.

Aristotelesek izaki zehatzak materiaz eta formaz osatuta daudela esan zuen. Materia potentzia hutsa da eta forma aktu da. Bere ustez, gertaera bat azaltzen da lau kausen bidez: kausa materiala, kausa formala, kausa eragilea eta kausa xedezkoa.

Tomas Aquinokoaren ustez, azterketa aristotelikoan ez dugu aurkitzen azalpen nahikorik existentziari buruz. Hutsune horren arrazoiak Aristotelesek unibertsoa betierekoa zela pentsatzen zuela da. Aquinokoaren ustez, materiak eta formak esentzia osatzen dute eta esentzia hori potentzia da eta aktu bilakatu behar da, hau da, existentziara eraman behar da.



## ANTROPOLOGIA

Tomas Aquinokoak gizakiari buruz duen kontzeptua Aristotelesen teoria hilemorfikoaren araberakoa da. Gizakia materiaz eta formaz osaturiko batasun substantzial bat da, bere materia gorputza da eta bere forma arima da. Hiru arima mota daude: razionala (gizakiari berez dagokiona), sentimenezkoa (animalia guztiei berez dagokiena) eta begetatiboa (landareei dagokiena).

Horrez gain, Tomas Aquinokoak arima hilezkorra dela baieztu zuen, zehatz-mehatz, arimaren barne dagoen adimen eragilea den zatia, abstrakzioak egiteko gai dena.

## EZAGUTZA

Jainkoaren existentzia frogatzeko bost bideetan ikusi dugun moduan, Tomas Aquinokoa sentimenezko datuetatik abiatzen da beti bere gogoeta aurrera eramateko.

“*Enpirismo*” horrek adimenezko ideia jaiotzetikoak ez daudela eraman zuen. Tomas Aquinokoaren ustez, adimena *taula hutsa*<sup>1</sup> da, eta adimenean eratzen diren ideia guztiak sentimenean dute sorburu. Salbuespen batzuk omen daude: Liburu Santuak idatzi zituzten idazleen kasuan, Jainkoak berak argitu zituen beren adimenak.

### Ezagutza-motak

Aristotelesen pentsamenduari jarraituz, Tomas Aquinokoa bi ezagutza-mota bereizi zituen: sentimenezko ezagutza eta abstrakzioaren bidezko ezagutza.

- **Sentimenezko ezagutza.** Gizakiak errealitatea sentimenean bidez hautematen du (ezagutza ororen sorburua sentimenezkoa, zehatza edo partikularra den hori da). Gero, irudimenari esker, errealitateari buruzko irudia eratzen da adimenean, **fantasma** izenekoa.
- **Abstrakzioaren bidezko ezagutza. Adimenak** bi eragiketa burutzen ditu:
  - a) **Abstrakzioa: Adimen eragileak** burutzen duena. Horren bidez adimen eragileak objektu askotan komunean gertatzen diren elementuak biltzen dira.
  - b) **Kontzeptu unibertsalen eratzea** adimen eragileak jaso duen informazioaz baliaturik. Eragiketa hori **adimen jasaileak** burutzen du.

Gizakiak sentimenezko errealitatea ezagut dezake, besterik ez. Jainkoa, beraz, bere sentimenean kanpo gelditzen da. Hala ere, bost bideetan agerian utzi zuen moduan, Jainkoari buruz zeharkako ezagutza lor dezake gizakiak, Tomas Aquinokoaren ustez.

### Unibertsalen inguruko problema.

Garai hartako pentsalari gehienek bezala, Tomas Aquinokoa ere eman zuen bere iritzia unibertsalen inguruko problemari buruz. Berak proposatu zuena gehiegizko errealismoa eta errealismo moderatuaren arteko erdibidean kokatuta dago.

- Gehiegizko errealismoak bezala, Tomas Aquinokoa pentsatzen zuen Jainkoaren adimenean ereduak forma edo ideiak daude, gauzen esentziak direnak.
- Errealismo moderatua bezala, giza-adimena abstrakzioaren bidez unibertsala hautemateko eta kontzeptuak eratzeko gai dela pentsatzen zuen.

<sup>1</sup> **Taula rasa:** Izen hau erabiltzen da adimenean hasiera batean inongo edukirik ez dagoela adierazteko, paper zuri bat izango balitz bezala, eta esperientzia izan ahala adimena edukiez betetzen doala. Horrelako ulertzea Platonen planteamenduen kontra dago: Platonen ustez, arima gorputzean egon baino lehen Ideien mundua egona omen ze, eta mundu fisikoan ezagutzea oroitze-prozesu bat bezalakoa zen.

Bere ustez, unibertsalak hiru modutan ulertu behar dira:

- **Ante res** (“gauzak baino lehen”). Unibertsalak Jainkoaren adimenean dauden ereduako ideiak dira. Beraz, errealitatea bainoa lehenagokoak dira.
- **In rebus** (“gauzetan”). Unibertsalak banakoen formak dira, eta horien bidez generoetan eta espezieetan bereizten dira. Unibertsalak, beraz, gauzetan daude.
- **Post res** (“gauzak baino geroago”). Gizakiak abstrakzioaren bidez formak ezagutzen ditu bere adimenez baliaturik. Unibertsala sentimenetatik abiatuturik formak hautatzeko gizakiak burutzen duen prozesuaren emaitza da.

*Gure ideiak substantzia indibidualen gaineko esperientziaren bidez lortzen ditugu – mahai hau, zuhaitz hori, izar hura – eta abstrakzio-prozesua baten bidez mahai guztiei buruz, zuhaitz guztiei buruz, izar guztiei buruz kontzeptuak eratzen ditugu. Giza adimenak izaki antzekoen artean ezaugarri antzekoak bereizten ditu eta espezie bereko izaki guztiei esleitu ahal zaizkien definizio unibertsalak ematera iristen da.*

Ramon Xirau *Introducción a la historia de la filosofía* UNAM

## ETIKA ETA LEGE NATURALA

Aristotelesen pentsamenduari jarraituz, Tomas Aquinokoak etika eudemonista<sup>2</sup> eta izaki natural guztiek xede baterantz<sup>3</sup> jotzen dutelako ideia bereganatu zituen. Gizakiren kasuan, xede hori **zoriona** da, eta zoriona perfekzioa eta bikaintasuna lortzean datza. Zoriona eta onbidea batzen ditu eta, Aristotelesek bezala, bi onbide mota bereizi zituen: teorikoak eta etikoak. Onbide horiek dira zoriona lortzeko bideak.

- **Bide teorikoan** (adimenezko bidea edo bide kontenplatiboa) gizakiak **onbide teorikoak** garatzen ditu. Zoriona dohatsutasuna ematen digun Jainkoa begiestea lortzea da. Zentzu horretan, santuek erakusten digute bizitza zoriontsu baten eredu hobereana. Arima hilezkorra da eta mundu honez haraindira jotzen du. Halaber, zoriona ezin da lurreko mundu honetan lortu, baizik eta zeruetako munduan bakarrik. Gizakia, hala ere, ez da gai Jainkoarengana soilik bere indarrez iristeko, eta Jainkoaren graziaren laguntza behar du bere arima argi dezan.
- **Azturazko bidean** gizakiak **onbide etikoak** garatzen ditu. Tomas Aquinokoak Jainkoarengana iristeko bide teorikoaz gain badagoela beste bide bat baieztatu zuen: Arrazoimenez baliaturik, ekintza ona une orotan hautatzeko aztura bereganatzea.

<sup>2</sup> Etika eudemonista: Gizakiak duen xedea “eudemonia” lortzea dela defendatzen duen etika. Eudemonia hitzarekin grekoek adierazi nahi zuten erabateko moduan ongia lortzea, hau da, ongi bizitzea edo zoriona.

<sup>3</sup> Ikusi Jainkoaren existentzia frogatzeko bosgarren bidea.

## Lege naturala

Arrazoimenak, gai moral bati buruz hausnartzen ari denean, lege naturala dagoela aurkitzen du, giza arrazoimenak bere izatean bertan oinarritzko printzipio batzuk inprimatuta daudela aurkitzen ditu. Adibidez: “egin ezazu ongia eta gaizkiari ihes egin”. Arau moralak, beraz, ez dira lurralde bakoitzeko ohituren eta konbentzioaren ondorioak. Aldiz, arau moralak lege naturalaren isladak dira. Lege naturala **ez dago inon idatzita, eta unibertsala eta aldaezina da**. Eta hausten badute ere, gizaki guztiek aitortzen dute.

Lege naturala gizakiak bere izaeran inprimatuta dituen xedeei buruzkoa da. Izaera horren osagaiak **joerak eta azturak** ditugu, eta joera eta aztura horiek bere xedeak ezartzen dituzte, nolabait. Adibidez: bizirik irauteko printzipioa, ugaltzeko printzipioa edo gizartean bizitzeko printzipioa. Lege naturalak ere agintzen du gizakiak xede horiek lortzeko nola gidatu behar duen bere burua, arrazoiak baliaturik, eta horretarako zein dira hautatu behar dituen baliabideak edo bitartekoak. Tomas Aquinokoak oso garbi zeukan lege naturalak jokaerarako jarraibide orokorrak ezartzen dituela, eta, horregatik, jarraibide horien aplikazioa zehazterakoan problemak eta eztabaidak sortu daitezkeela.

Tomas Aquinokoaren ustez gizakia zuzentzen duen lege naturala eta unibertsoa agintzen duten legeak azken batean gauza bera da. Biek Jainkoarengan dute jatorria. Unibertsoko legeek naturako izaki guztiek dituzten xedeak ezartzen dituzte, beraz, gizakiaren xedeak ere bai.

## Lege positiboa eta iusnaturalismoa

Lege naturalaz gain, gizakiak **gizartea antolatzeko**, hau da, gure arteko bizikidetzaren antolatzeko, legeak eta arauak ezarri behar ditu. Lege horiek zuzenbidea osatzen dute eta lege positiboak dute izen.

Tomas Aquinokoaren ustez, gizakiaren izaeraren barne gizartean bizitzeko printzipioa dugu. Hau da, gizakia zer den eta nolakoa den ezartzen duena zehaztu behar dugunean gizartean bizi beharra dugu, besteak beste. Gizartearen antolaketa lege idatziak eskatzen dituen gero, lege positiboa **lege naturalak ezartzen duen eskakizuna** bat dela esan dezakegu. Beraz, lege positiboek lege naturalaren arabera izan behar dute, lege naturala oinarri izan behar dute, eta legitimazioa galtzen dute lege naturalaren kontrako jokaerak bultzatzen badituzte.

Lege naturalaren existentzia defendatzen duen jarrera filosofikoa **iusnaturalismoa** da. Historian zehar eragin handia izan du eta Giza-eskubideen aldarrikapenean horren eragina eta islada ikus daiteke.

## POLITIKA

Tomas Aquinokoak gizakia berez animalia gizartekoia dela esan zuen. Baina horrekin batera, gizakiak xede transzendente bat duela defendatu zuen. Izate horrek antolaketa sozialean du islada eta horregatik antolaketa horrek bi ardatz: lurreko boterea eta mundu gaindizko boterea. Estatuak eta Eliza independenteak eta autonomoak dira. Estatuak guztion ongizatea bilatu behar du, lege naturalak ezartzen duenarekin bat datorrena.

Tomas Aquinokoaren ustez, botere politikoa eta botere erlijiosoa autonomoak eta bateragarriak dira, baina, azken batean, botere politikoak erlijioaren menpe egon behar du, bere xedeak lege naturalaren betetzea bultzatzea baita.



Bere pentsamenduan, etikak nahiz politikak Aristotelesen pentsamenduan dute oinarri filosofikoa. Baina oinarri filosofiko horrez gain, Tomas Aquinokoak osagarri teologiko bat kontuan hartzen du: bere ustez, ikusi dugun bezala, gizakiak duen azken xedea naturaz gaindikoa da, eta Estatuak ezin du xede hori asetu. Horregatik Tomas Aquinokoak Eliza eta Estatuaren erlazioa ere aztertu zuen.

## **ESTATUA.**

Estatua, Aristotelesen pentsamenduan bezala, erakunde natural bat da, gizakiaren izatean bertan oinarri duena. Gizakia ez da isolaturik dagoen gizabanakoa, aldiz, gizakia izaki sozial da berez, beste gizaki batzuekin elkarrekin bizitzeko sortua dena. Gizakiak gizartea behar du.

- Animaliei Jainkoak janari eta jantzi eman dizkie,... gizakiak bilatu behar ditu beste gizaki batzuekin elkarlanean arituz.
- Beharrezkoa da lana banatzea: bat medikua da, beste bat nekazaria,...
- Gizakiak hizkuntzaren bitartez komunikatzen dira: hizkuntza gizakia gizartean bizitzeko sortua delako seinalea da.

## **GOBERNUA ETA GIZARTEA.**

Gizartea berezkoa bada, gobernuak ere bai. Arima falta denean, gorputza usteltzen den moduan, berdin gertatzen da gizartearekin guztion onerako jarduerak bateratzen eta zuzentzen dituen printzipioa (gobernuak) falta bada. Buruak gorputza agintzen du; gobernuak Estatuak.

Gobernuak eta Estatuak Jainkoak maite ditu. Estatuak ez da jatorrizko bekatuaren ondorioa, ez da giza egoismoak sortu duen zerbait (Agustin Hiponakoak esan zuen moduan).

### ***Gizarte perfektua***

Estatuak gizarte perfektu bat da: Bere xedea (hiritar guztien ongia) lortzeko beharrezkoak diren bide guztiak ditu. Guztion ongia gerta dadin beharrezkoak dira bakea, ekonomia, defentsa, epaitegiak,.. eta gauza horiek bermatzen dituen gobernuak.

Elizaren xedea naturaz gaindikoa da. Estatuak duen xedea baino goragokoa. Eliza Estatuak baino goragoko gizarte bat da. Nolabait Estatuak Elizaren menpe egon behar du, Elizak duen xedea lortzea ez ekiditeko moduan. Estatuaren gobernuak gizakiak duen naturaz gaindikoa xedea lortzea ahalbidetu behar du.

Arrazoimenaren eta fedearen arteko erlazioan gertatzen den bezala, nolabait. Arrazoimenak bere eremu propioa du, baina fedearen zerbitzuan egon behar du. Estatuak bere eremu propioa du, baina nolabait Elizaren menpe egon behar du.

### ***Gizabanakoa***

Gizabanakoak Estatuarekin dituen erlazioak aztertzen dituzenean, Tomas Aquinokoak zatia osotasunari begira antolatuta dagoelako printzipioa gogoratzen du, eta, gizabanakoa zatia denez gero, Estatuaren legeak guztion onerako xedatu behar dira, hau da, osotasunari begira.

Horregatik, adibidez, aginte publikoak krimen larriak egin dituen hiritar bati bizitza kentzea bidezkoa dela argudiatzen du, gizabanakoa komunitatearen onerako xedatzen delako.

Baina ezin dugu Tomas Aquinokoaren planteamendu hori totalitarismo bezala ulertu, oinarrizko printzipio hori azken ondorioetaraino eramanez eta gizabanakoa soilik guztion ongirako existitzen dela pentsatuz. Gizakia ez da bakarrik Estatuaren kide bat. Horrez gain, gizakia pertsona bat da, naturaz gaindiko xede batera jo behar duena.

### **Subiranotasuna**

Estatuaren subiranotasuna ez da absolutua, mugatua baizik:

- Lege naturalak mugatzen du: legegileak eta subiranoak lege naturala aplikatu eta zehaztu behar du, lege naturalaren aginduak oso orokorrak direlako. Baina legegileak ezin du inoiz lege naturalaren kontra jo, agintea Jainkoarengandik datorkiolako eta Jainkoa lege naturalaren egile bakarra delako.
- Guztion ongiak mugatzen du: Lege bat zuzengabea izango da guztion ongiaren kontrako baldin bada (legegileak dituen xede egoistak lortzeko bada) Orduan, horren menpekoek ez diote lege horri obeditu behar; are gehiago, kasu horretan zilegi da desobeditzea, gizakiei baino lehenago Jainkoari obeditu behar diogulako.
- Agintea Jainkoak herriari eman dio, eta herriak gobernariari (jarrera hau ez dago oso argi Tomas Aquinokoaren idatzietan, eta zenbait testuk kontrako iritzia defendatzen dutela dirudi) Hala ere, gobernariak beti herriaren ordezkari bezala hitzegiten du eta gobernariak ahalmena du soilik herria ordezkatzeko bada eta herriaren onerako jokatzeko bada. Horregatik zilegi da jasotako eginbeharra betetzen ez duen tiranoaren kontra matxinatzea, Tomas Aquinokoak tiranoaren kontrako matxinada defenditzen ez bada ere, matxinada horrek porrot egiten bada kalte handiagoak etortzen direlako. Egin beharrekoa monarka tirano bihurtzea ekiditea da.

### **GOBERNU MOTAK**

Tomas Aquinokoak honako gobernu mota hauek bereizi zituen:

- Onak: Legeari men egiten dion demokrazia, aristokrazia eta monarkia.
- Txarrak demokrazia demagogikoa, oligarkia eta tirania.

Okerrena tirania da. Hoberena monarkia da: batasun handiagoa ematen du, "berezkoagoa" da buruak gorputza agintzen duen moduan herria agintzen baitu. (Erleek erregina dute, eta Jainkoak erregetza)

Baina ez da erraza pertsona hobereena monarka izatea lortzea, eta, beraz, hobe da mota misto bat: herriak hautatutako magistratu batzuek monarkaren boterea moderatzea.

Gaur egungo termino bat erabiliz, Tomas Aquinokoak monarkia konstituzionala eskatuko luke: Ez dago mota jakin bat Jainkoak agindutakoa dena; garrantzia duena guztion ongia sustatzen duen ala ez jakitea da. Laburbilduz: Tomas Aquinokoaren teoria politikoa malgua da, ez zorrotza. Moderazioa, oreka eta sen ona edukitzea da bere ezaugarri handiena. Teoria politikoa ez da bere sistema filosofikoari gehitu zaion zerbait. Aldiz, sistema filosofiko horren osagai bat da: Jainkoa Jaun gorena da, Unibertsoaren agintaria, lehen kausa eta kausa xedezkoa, baina ez kausa bakarra. Sorkari razionalek arrazoiarekin bat etorritik gobernatu behar dute beren burua.